

GARA- 17 DE ABRIL DE 2009

DURANGO > LARUNBATA, 19.00, Plateruena Kafe Antzokia

Aikok erromeria saioa eskainiko du bihar Durangoko Plateruenan

Aikok, dantza eta musika maisuz osatutako taldeak, abian jarri du Dantzaldi Ibiltaria eta Bizkaiko bazter guztietan zehar dabilta dantza tradizioaletan trebatzeko tailer errazak eskaintzen. Larunbat honetan, bi ordutako saio bat eskainiko dute Plateruenan. Aikoko taldekideen esanetan, «badago dantzatzeko beste modu bat. Doinu bat entzutean berez oinak mugitzen ditugunean, kullunka egiten dugunean, dantza tradizionalari atea zabaltzen diogu. Hortaz, dantzaz gozatu egiten dugu». Ikastaroa arratsaldean izango da, 19.00etatik aurrera.

